



**OÑATI**  
dabilen herria



Oñatiko Udala

## **OÑATIKO UDALAREN ETA ASOCIACION DE VECINOS TRINIDAD AUZO- ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

### **Bildurik**

Alde Batetik, **Izaro Elorza Arregui andrea**, 15396342-G NAN duena, Oñatiko Foru enparantza 1ean lan egiten duena, Alkate izanik Udal Korporazioaren izenean.

Bestetik, **Miren Mirari Ibabe Erostarbe**, 725745125M NAN duena, Araotz auzoko auzo-alkate dena eta, Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkartearen izenean aritzeko gaitasuna duena.

### Azaltzen dute

I.- Auzoak eta Landa Garapen Departamentuak 2019-2023 Gobernu Programaren barruan landa auzoen sustapen- eta bultzatze-politikari dagozkion ekintzak ezarri ditu, indarrean diren ekintza lerroak osatzen dituztenak. Horrenbestez, Oñatiko landa-auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko eta auzotarren harremanak sustatzeko auzoaren ordezkari diren auzo-elkarteen eta Oñatiko Udalaren artean lankidetzara iraukorra ezarri eta bermatu nahi da.

II.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikulua xedatutakoaren arabera diru-laguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea izango da. Hala ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2 a) artikulua onartzen du, Estatuko Aurrekontu Orokorretan, Autonomia Erkidegoetakoan edo tokiko erakundeetakoan izenez aurreikusten diren diru-laguntzak zuzenean emateko aukera, hitzarmen eta diru-laguntzen arautegian jasotakoari jarraiki. Horrela jasotzen da Oñatiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorren 4. atalean ere.

III.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 122. artikulua arabera udal auzo bakoitzean Alkateak ordezkari bat izendatuko du, hain zuzen, landa auzoetan auzo-alkate bezala ezagutzen direnak. Aipatu auzo-alkateak auzoko juntetan proposatzen dira eta Oñatiko Osoko Bilkurak onartzen ditu. Hortaz, landa-auzoen ordezkari legal bakarrak dira auzo-alkateak eta auzotarrak biltzen dituen auzo-elkartek, non auzo-alkatea lehendakaria izaten den.

IV.- Kontuan izanda Oñatin dauden 16 landa-auzo bakoitzak badutela ordezkari jakin bat, landa-auzoak sustatzeko eta bultzatzeko diru-laguntzak ezin dira lehiaketa bidez deitu, onuradun bakarrak baitira.

Hortaz, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2 a) artikulua xedatutakoaren eta Oñatiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorren 4. atalaren arabera, diru-laguntzak zuzenean emateko



**OÑATI**  
dabilen herria



Oñatiko Udala

aurrekontuetan izenez jasota egon beharko dira eta kontzesioa arautuko duten hitzarmenen bidez egin beharko da.

V.- Oñatiko Udalak eta auzo-alkateek elkarrizketak izan dituzte, euren arteko lankidetzara iraunkorra ezartzeko eta bermatzeko helburuarekin.

VI.- Hori guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau

## **Hitzartzen dute**

### **1.-Hitzarmenaren helburua**

Hitzarmen honen xedea da Oñatiko landa auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea eta auzotarren harremanak sustatzea. Auzoaren izaera eta nortasuna indartu eta auzo bizitza mantendu ez ezik indartzen ere laguntzen duten jarduerak bultzatzea da helburua.

### **2.-Datuen babesa:**

Aurreko atalen arabera Estatuko Administrazio Orokorreko Kontu-hartzailetzari egin beharreko datu pertsonalen lagapena, dagokionaren baimenik gabe egingo da.

### **3.-Hitzarmenaren iraupena**

Hitzarmen honen iraupena urte betekoa da, udal aurrekontuak ahalbideratzen duten heinean urtero berristuko dena.

### **4.-Laguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpidea**

Auzo bakoitzari dagokion diru-atala kalkulatzeko honako hauek hartuko dira kontuan: auzoan erroldatutako pertsona kopurua (%50) eta familia bakarreko edo bi familiako etxeen kopurua (%50), aurrekontua onartu aurreko urteko datuetan oinarrituta. Udal aurrekontuek ahalbidetzen duten heinean, auzo batek jasoko duen gutxieneko dirulaguntza kopurua 4.000 €-koa izango da.

Aurrekontu-partidaren zenbateko osoa 16 auzoen artean banatuko da arestian aipatutako bi faktoreen arabera haztatuta.

Aurrekontuak onartutakoan, Zerbitzuak eta Landa Garapen Departamentuak auzo-alkate bakoitzari adieraziko dio zein den egokitu zaien diru-kopurua.

### **5.-Diruz lagundu ahal diren kontzeptuak**

Auzotarrak biltzeko erabiltzen den lokala eraberritzeko lanak honako baldintzapean: lokal hori nahitaez auzotar guztientzat zabalik egongo da, berdintasun baldintzetan. Ez da onartuko soilik lokal-elkarte bateko bazkide diren auzotarren onurarako eginiko gastu edo inbertsioa diruz laguntzea.

Auzoetako jaien gastuak. Atal honetan, jaien antolakuntzak sortutako gastuak izango dira finantzarriak. Hala ere, ez dira diruz lagunduko auzoko jaien barruan jan-edanak sortutako gastuak, luntx edo antzeko ekitaldi irekiak salbu.

Hitzaldiak eta ikastaroak. Atal honetan, honako gastuak izango dira finantzarriak: hezkuntza, formazio, aisialdi edo antzeko beste edozein jardueretatik sortutako gastuak.

Auzotar guztiek erabiltzeko erositako materiala, besteak beste, liburuak, DVDak, ordenagailua, proiektorea, musika aparatua, eta antzekoak.

Auzolana egiteko materiala erostea edo alokatzea.

Bideak, plazak, udal-ekipamenduak, haur-parkeak, hiri-altzariak, lorategiak, kirol-ekipamenduak, kaleetako argiteria, saneamendua, kontsumo publikorako ura ekartzeko hoditeria. Atal honetan, Udalaren eskuduntza diren ohiko mantentze-lanetan sartzen ez diren hobekuntza-lanen fakturak izango dira finantzarriak. Udalak lehenetsitakoak ez diren mantentze edo konponketa lanak auzoak lehenetsiko balitu, aukera legoke auzotasuneko partidatik finantzatzeko.

Beste batzuk: aurreko lerroketan aipatu gabeko beste edozein faktura finantzarria izango da, betiere "auzotasuna" programaren helburu eta baldintzekin bat egiten badu.

## **6.-Diruz lagunduko ez diren kontzeptuak**

Ez dira finantzarriak izango:

-Ez dira inoiz finantzatuko komunitate osoarentzat onurarik ez dakarten edo auzotar guztientzat ez diren obren eta jardueren fakturak.

- Obra edo jarduera bati dagokion fakturarik ez badago, ez da finantzarria izango. Ildo horretan, aipatu behar da auzotarren beraien eskulana ez dela inoiz finantzarria izango.

- Ez dira diruz lagunduko auzoko jaien barruan jan-edanak sortutako gastuak, luntx edo antzeko ekitaldi irekiak salbu.

## **7.-Diru-laguntzak emateko prozedura**

7.1- Auzo bakoitzak izendatuta duen urteko aurrekontua bi zatitan ordainduko da: lehena, behin hitzarmena sinatu ostean; bigarrena, urtean zehar egindako ekintzen memoria ekonomikoa edo likidazioa aurkeztu ostean.



**OÑATI**  
dabilen herria



Oñatiko Udala

7.2. Auzo-elkarteek askatasuna izango dute hitzartutako diru-atala beharrezkoak jotzen dituzten zereginetan gastatzeko, betiere, hitzarmenaren 5. artikulua xedatutakoaren barruan.

7.3. Auzo-elkarteek urtea bukatu aurretik diru aurrerakina eskatu ahal izango dute, horretarako Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordeari zuzendutako eskaera egin beharko dute. Bertan adieraziko da zein obra edo jarduera egingo den eta zein aurrekontu izango duen. Eskaerak eta gainerako agiriak Udaletxeko Sarrerren Erregistroan (HAZean) aurkeztu behar dira.

### **8.-Gastuak eta egiaztagiria**

Soilik egiaztagiri hauek joko dira baliogarritzat:

a.- Oro har, enpresek edo hirugarrenek emandako horniduren edo zerbitzuen kasuan, dagokion faktura aurkeztu beharko da, lege-baldintza guztiekin (BEZ, IFZ edo NAN).

Salbuespenak honako hauek izango dira:

I.- Txikizka saltzen duten xehekarien kasuan, ticketa edo ordainagiria aurkeztu behar da, eta gastuaren arrazoia zein izan den adieraziko da, baita NAN edo IFZ ere.

II.- Beren jarduera motagatik (ez profesionala, unean-unekoa...) fakturarik egiten ez duten pertsonak puntualki egindako zerbitzu pertsonalak 600 euro artekoak izan ahalko dira. Horrelakoetan, interesatuak sinatutako agiri bat aurkeztu beharko da, eta bertan agertuko dira izen-abizenak, jasotzailearen NANA eta ordainketaren zenbatekoa eta arrazoia.

b.- Eskudirutan edo beste modu batean egindako ordainketak. Interesatuaren ordainagiri bat aurreko puntuan aipatutako baldintzeekin.

### **9.-Urteko gastuen likidazioa**

9.1- Urte bukaeran (epe-muga abenduaren 31a) memoria ekonomikoa deskribatzen duen likidazioa aurkeztu beharko da, non, urtean zehar egindakoen deskripzio laburra eta gastuak argi eta garbi azaldu beharko diren. Gutxienez honakoak aurkeztu beharko dira:

- Egindakoen memoria laburra
- Izandako gastuen laburpen-taula
- Izandako gastu guztien fakturak eta ordainagiriak

9.2- Aipatu eskaera, lehenengo eta behin Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen teknikariak aztertuko du. Bertan egindako irizpenarekin, Alkate Dekretu bidez ebatziko da diru-laguntzaren zenbatekoa. Auzo bakoitzari dagokion urteko partida izango da gehieneko diru-laguntza muga.

9.3- Ez dira diruz-lagunduko hitzarmenaren 5. artikuluekin bat ez datozen gastuak. Udalak dirua aurreratuta edukiko balu, hurrengo urteko diru-atalean onartu gabeko



**OÑATI**  
dabilen herria



Oñatiko Udala

gastua kenduko zaio auzotasun diru-atalari edo emandako dirua bueltatu beharko dute.

9.4- Hitzarmen honen bidez araututako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera izan eta aurrekontu publikoen kargura eman daitezkeen beste diru-laguntza batzuekin. Beste finantzazio-bide batzuk ere lortu balira, eta oinarri arau espezifikoek beste erregulazioen bat ezarri ezean, izandako gastuaren %100ean ezartzen da finantzazio-muga, hau da, ezingo da inoiz gertatu gain finantzaketarik Udalaren diru-laguntzarekin.

### **10.-Auzo-elkartearen bete beharrak Udalarekiko**

Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkartek, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutako konpromisoez gain, honako konpromisoak hartzen ditu Oñatiko Udalarekiko:

10.1.- Miren Mirari Ibabe Erostarbe auzo-alkateak modu jarraian eta iraunkorrean parte hartuko du Udalak urtean zehar deituriko auzo-alkate foroetan.

10.2.- Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkartek urteko likidazio txostena aurkeztuko du, besteak beste, burututako ekintzen, lortutako emaitzen eta elkartearen egoeraren berri ematen duena

10.3.- Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkartek urteroko bere diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartua balego edo eta Udalak edo beste Administrazio batek hala eskatuko baliokete, elkarteak derrigorrez jarri beharko ditu ikuskariaren esku, Diru-laguntzen Lege Orokorren 14.1.f artikulua araberak eskatutako liburu, erregistro edo agiria guztiak.

Era berean, egiaztapen aktuzioak onartu beharko ditu Udalaren aldetik eta baita egiaztapen eta diru kontrolekoak ere ahalmena duten kontrol-organoren baten aldetik, eskatzen zaion beste argibide emanaz.

10.4.- Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkartek hitzarmena izenpetu aurretik, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioei dagokienez egunean dagoela egiaztatuko behar du.

10.5. Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkartek hitzarmena izenpetu aurretik, legeak agintzen dituen eta dagozkion erantzukizun zibileko aseguruaren polizak egiaztatuko ditu.

### **11.- Udalaren eskumenak.**

Udalari dagozkio honako eskumenak: hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (apirilaren 18ko, 781/1986 Erret Dekretu legegilearen 114. artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta.

Horri buruz hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

### **12.-Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordea**

Hitzarmen honen helburuak modu egokian bete daitezzen, beraren jarraipena egiteko Batzordea eratzen da honako pertsona hauek osatzen dutena: Oñatiko alkateak edo honek ordezkaturako zinegotziren batek; Oñatiko Udaleko Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikariak; Miren Mirari Ibabe Erostarbe auzo-alkateak edo honek ordezkaturako norbaitek.

Jarraipen Batzordeko bileretara, hitzarmena sinatzen duten alde bietako batek hala eskatuta, beste pertsonaren batzuk ere joan ahal izango dute, gai zerrendan dagoen gairen baten iritzi tekniko edo profesionala emateko.

Jarraipen batzordea urtean gutxienez behin bilduko da; hala nola, Udalaren aurrekontuen prestaketa prozesua irauten duen bitartean

Halaber, bi aldeetako batek Jarraipen Batzordearen bileraren bat eskatzen badu, bilera eskatu denetik hamabost egun baino lehen ospatuko da bilera hori.

### **13.-Hitzarmena desagitea**

Asociacion de Vecinos Trinidad auzo-elkarteak jarritako baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behera utz lezake, Elkartek Udaletik jasotako diru-laguntza itzuli beharko lukeelarik.

Hitzarmenaren klausulak bana-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartzen. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, hasieran adierazitakoa toki eta egunez sinatzen dute

Hitzarmen hau, Oñatin 2022ko martxoaren 1ean.

Oñatiko Udalaren izenean



Izaro Elorza Arregui

Araotz auzoko auzo-alkatea



Miren Mirari Ibabe Erostarbe